

Abenduak 10, Giza Eskubideen Nazioarteko Eguna


Gazteen % 67 pozik daude Euskadin giza eskubideek jasotzen duten errespetuarekin

Giza Eskubideen Nazioarteko Eguna abenduaren 10ean ospatzen dela-eta, Euskadin giza eskubideen errespetuarekin pozik dauden gazteen portzentajea aurkeztu nahi du Gazteen Euskal Behatokiak.

18 eta 29 urte bitarteko hiru gaztetik bi (% 67) pozik ageri dira Euskadin giza eskubideek jasotzen duten errespetuari buruz galdetzen diegunean: % 12 oso pozik eta beste % 55 nahikoa pozik. Aitzitik, gazteen % 29 ez daude pozik Euskadin giza eskubideek jasotzen duten errespetuarekin. Gainerako % 5ek ez dute beren iritzirik eman.

Euskadin giza eskubideen errespetuarekin pozik dauden gazteen proportzioa nabarmen handitu egin da aurreko urteetatik hona: 2005ean % 35 zeuden pozik, 2009an % 46, 2014an % 62 eta 2018an % 67.

Euskadin giza eskubideek jasotzen duten errespetuarekin pozik dauden 18 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoaren bilakaera (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokiak egina, Eusko Jaurlaritzako Prospekzio Soziologikoen Kabinetearen datuak oinarri hartuta

Datuok Lehendakariatzako Prospekzio Soziologikoen Kabineteak urtero prestatzen dituen *Gazteen Argazkiak* izeneko txostenetatik atera dira, bai eta Prospekzio Soziologikoen Kabineteak pasa den azaroan argitaratu duen azken 68. Euskal Soziometrotik ere.